HAZI FUNDAZIORAKO 8 IBILGAILU ERRENTAN (RENTING), EROSTEKO AUKERARIK GABE, HORNITZEKO KONTRATAZIOAREN PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea Hazi Fundazioak eskatutako 8 ibilgailu errentan (renting), erosteko aukerarik gabe, hornitzea da, 48 hilabetez.

Ibilgailu horiek Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren jasangarritasun energetikoari buruzko irailaren 22ko 178/2015 Dekretua betez eskatzen dira. Dekretu horren 12. artikuluan honako hau ezartzen da:

– Dekretu hau indarrean sartzen den egunetik aurrera, Euskal Autonomia Erkidegoko alor publikoak erosten dituen ibilgailuek petroliotik ateratako erregaien ordezko energia-iturriak erabili beharko dituzte.

Hasieran eskatzen diren ibilgailuak honako hauek dira: 8 automobil Bifuel (Gasolina+GLP).

2. KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuaren iraupena 48 hilabetekoa (4 urte) izango da, ibilgailuak eskura jarri eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, eta kontratua formalizatzen denetik gehienez ere 4 hilabeteko epean jarri beharko dira eskura.

2 Ibilgailu Hazi Fundazioak Arkautin dituen instalazioetan entregatuko dira. Granja Modelo z.g. 01192 (Vitoria-Gasteiz). Beste 6 Abadiñoko egoitzan hau da Muntsaratz z.g 48220 Abadiño (Bizkaia). Horiek behar bezala errotulatuta, matrikulatuta, aseguratuta, behar den zirkulazio-baimenarekin eta dagokion ingurumen-bereizgarriarekin ematea da eskura jartzea.

3. IBILGAILUEI ESKATZEN ZAIZKIEN BALDINTZA TEKNIKOAK

Jarraian, ibilgailu guztiek nahitaez bete beharrezko ezaugarriak zehazten dira.

Mota:

- 5 ateko automobila
- Plaza-kopurua: 5
- Urteko kilometroak: 23.500 km

Motorra

- Erregaia: GLP teknologia+gasolina (fabrikatzaileak homologatu eta instalatua Idae etiketa aurkeztuz)
- Motorraren potentzia: Gutxienez 95cv

Transmisioa

- Eskuzko abiadura-kaxa
- Trakzioa: Aurrekoa

Luzera

- Luzera: Gutxienez 4000; Gehienez 4500

Pneumatikoak

- Lehen markako “all season” pneumatikoak

Balaztak

- Balazta-sistema: ABS

Karrozeria

- Kolorea: Zuria eta Haziren estilo-eskuliburuaren arabera errotulatuta (ikusi eranskina)

Erosketa berdea/ingurumen-inpaktua.

- Gutxieneko kontsumo txikiko ibilgailuak: CO2 (G/KM) Gehienez 120
- Gutxieneko isurien estandarra EURO6

Beste batzuk

- Aire girotua klimatizagailuarekin
- Beira-jasogailu elektrikoa
- Itxi-sistema zentralizatua
- Direkzio lagundua
- Aparkatzeko atzeko sentsorea

- Multimedia-sistema, ukipen-pantaila duen GPS nabigatzailea, bluetooth esku libreak.
- Pneumatikoak konpontzeko kit-a

- Flotak kudeatzeko sistema telematikoa (ibilgailuek egindako ibilbideak erakusten dituena denbora errealean).

4. ADJUDIKAZIODUNAREN BETEBEHARRAK

Orokorrak

- Errentariaren izenean matrikulatutako ibilgailu adjudikatuen erabilera errentariari lagatzea, zirkulazio-egoera ezin hobean, funtzionalki zein administratiboki, prezioan sartutako matrikulazio- eta zirkulazio-gastu guztiak barne. Era berean, ibilgailuak dagokion ingurumen-bereizgarriarekin ere entregatuko dira.

- Kontratuaren barruan dauden ibilgailuak Haziren flotarako erabiliko dira; beraz, ezin izango da horien ohiko gidariaren identifikatzailerik eman.

- Entregatzeko epea: 4 hilabete, kontratua formalizatzen den egunetik aurrera.

Mantentze-lanak:

- Errentariak aukeratutako markaren lantegi ofizialaren tailerreko mantentze-lan integralak (luminariak barne) eta IAT barne... Horrela, renting-ak mantentze-zerbitzu bat barne hartuko du, ordezko piezen, eskulanaren, ziztaden, lubrifikatzaileen, pneumatikoak birjartzearen eta beste edozein mantentze-lanen edo konponketaren gastuei aurre egiteko, erregaiaren kontsumoa izan ezik, hori Haziren kontura izango baita. Tailerrera eta IAT guneetara joateko garraioa errentariaren kontura izango da.

- Ibilgailuaren erabilera normalak eragindako higaduraren ondoriozko matxurak konpontzea (konponketa mekanikoak, bai eta txapa- eta pintura-konponketak ere). Era berean, konponketen atal honen barruan dago gurpilak orekatzea eta ondoren lerrokatzea, zulatu ondoren.

- Gutxienez 40.000 km-tik behin 4 pneumatikoak ordeztea, edo hausturagatik edo narriaduragatik beharrezkoa denean edo gurpil baten marrazkiaren sakonera 3

mm-tik beherakoa denean. Pneumatikoak ordezteko eragiketa horretan, oreka, paralelismoa eta lerrokadura sartuko dira, bai eta pneumatikoak aldatzeko puntuetara lekualdatzea ere.

- Ibilgailuak barrutik eta kanpotik garbitzea: 3 urtean, garbiketa-punturainoko garraioa barne. Horrek ez du gastu gehigarririk eragingo. Adjudikazioduna arduratuko da garbiketa-puntura eramateaz eta Haziko instalazioetara itzultzeaz.

- Flotaren kudeatzaile pertsonala, mantentze lanak edo konponketak errazteko, akjudikaziodunak kontaktu bat emango du, **flotaren kudeatzaile pertsonala** solaskide bakartzat hartuta, telefono-zenbaki batekin eta posta elektronikoarekin, etengabeko harremanetarako. solaskide bakar gisa. Haziren aurrean jarduteko, eta hura arduratuko da kontratuarekin zerikusia duen edozein gorabehera konpontzeaz (tailerrekin hitzordua kudeatzea, ibilgailuan egiten diren salmenta ondoko esku-hartzeen egiaztapena eta jarraipena egitea, istripuen parteak izapidetzea, ordezteko ibilgailuak, etab.).

- Flota-kudeatzailearekin kontaktuak iraunkorra izan beharko du, eta gutxienez 8:00etatik 16:00etara etengabeko lan-ordutegia izan beharko du.

- Konpondu, mantendu edo garbitu beharreko ibilgailua lantegi ofizialeko langileek jaso eta entregatuko dute, eta ez Haziko langileek, gehienez ere 24 orduko epean, abisua jasotzen denetik, bina horrek ez du gastu gehigarririk eragingo.

Ibilgailuak jazo eta entregatzeko zerbitzua

- Akjudikaziodunak ibilgailuak jaso eta entregatzeko zerbitzu bat emango du, hitzartuta dituen konponketa-tailerretatik ibilgailua dagoen 3 lantokietako edozeinetara, Hazirentzat kostu gehigarririk gabe

- Bilketa- eta entrega-zerbitzu horren salbuespen bakarrak ordezko pieza txikiak izango dira (eskuilak, haizetako-garbigailuak, lanparak, etab.).

Ordezko ibilgailuak

- Ibilgailua 24 ordutik gora ibilgetzea dakarren matxura, ezbehar eta berrikuspenen kasuan, antzeko ezaugarriak dituen ibilgailu bat emango zaio Haziri bestea ordezkatzeko (ez du zertan bilfuela (Glp+gasolina) izan), erabiltezina bajan dagoen bitartean, eta horrek ez du gastu gehigarririk eragingo. Haziren instalazioetan entregatu eta jaso beharko du, gehienez ere 48 orduko

epean, gorabehera jakinarazten denetik zenbatzen hasita. Ordezkapen-ibilgailu hori Haziren eskura egongo da ordezkatutako ibilgailua tailerrean dagoen bitartean, eta ordezkoak egindako kilometroak ibilgetuak egin izan balitu bezala zenbatuko dira.

Asegurua eta asistentzia

- Asistentzia 24 ordu/365 egun

- Flotaren kudeatzaile pertsonala solaskide bakar gisa. Esleipendunak kontaktua eta koordinatzailea izendatuko ditu Haziren aurrean, eta hura arduratuko da kontratuarekin zerikusia duen edozein gorabehera konpontzeaz (lantegiekiko hitzordua kudeatzea, ibilgailuan egiten diren saldu ondoko esku-hartzeen egiaztapena eta jarraipena egitea, istripuen parteak izapidetzea, ordezko ibilgailuak, etab.).

- Arrisku orotako eta frankiziarik gabeko asegurua

  Aseguruaren estaldura berbera izango da gidariarentzat eta laguntzailearentzat. Honako hauek hartuko ditu barne:
  - Nahitaezko erantzukizun zibila
  - Borondatezko harpidetzaren erantzukizun zibila (gehienez 50 milioi euro)
  - Ibilgailuak berak eta haren osagarriek jasandako kalteak.
  - Frankiziarik ez egotea.
  - Okupatzaileak, defentsa eta kalteen erreklamazioa.
  - Ibilgailua lapurtzea.
  - Beirak haustea
  - Errepideko laguntza, 24 orduz, 0 km-tik aurrera, estaldura estatu-mailan eta nazioartean, harremanetarako zenbakia adierazita.
  -

- Horren arabera, esleipendunaren kontura izango dira fabrikatzaileak gomendatutako aldizkako mantentze-lanengatik eta ibilgailuak behar bezala funtzionatzeko beharrezkoak diren behin-behineko konponketengatik fakturatutako zenbatekoak, ordezkapen-piezak barne.

- Erabateko ezbeharra gertatuz gero, aurreko paragrafoan bezala jokatuko da, istripua izan duen ibilgailua ibilgetu egin dela kontuan hartuta. Kalte-ordaina eta hondarrak esleipendunari emango zaizkio, eta Hazik ordezko ibilgailuarekin jarraituko du.

Istripuak eta ezbeharrak

- Ezbeharra gertatuz gero, enpresa akjudikaziodunak arduratuko da ibilgailuaz eta

ibilgailua konpontzeaz. Hazik berehala jakinaraziko du gertakaria, bai eta gorabehera kudeatzeko behar diren informazio-datu guztiak ere, eta ibilgailua ibilgetzen bada, enpresa akjudikaziodunak eta gidariek beren bizilekura eramateko adierazitako kudeaketa abiaraziko da.

Zigorrak

- Automobilari ezar dakizkiokeen zigorrei dagokienez, honako hauek beteko dira:
    - Automobilaren administrazio-dokumentazioaren egoeratik eta indarreko legeriak ezartzen duen berrikuspenik ez egiteagatik eratorritako zigorrak errentatzailearen edo adjudikaziodunaren kontura izango dira.

    - Automobila gidatzearen ondoriozko gainerako zigorrak Haziren edo gidariaren kontura izango dira, kasuaren arabera. Hala ere, errentatzaileak jasotzen dituen jakinarazpenak errentariari helaraziko dizkio berehala, gidaria identifikatzeko edo, hala badagokio, dagozkion errekurtso-bideak erabiltzeko. Hazik errentatzaileari jakinarazi beharko dio kasu bakoitzean hartutako ebazpena.

Prestakuntza eta informazioa

- Prestakuntza: adjudikaziodunak ziurtatuko du ibilgailuen erabiltzaileek ikasketa-maila egokia dutela ibilgailuaren maneiuari eta funtzionamenduari dagokienez, eta ibilgailuen erabiltzaileei behar besteko prestakuntza emango die ibilgailuaren gidaritzari eta karga-eragiketei buruz.

- Informazioa: adjudikaziodunak web plataforma ala bere kasuan ibilgailuen txosten bat aurkeztuko du hiruhilabetero Haziren Administrazioan, honako xehetasun hauekin:
    - Ibilgailu bakoitzaren kilometrajea
    - Urtean zehar egindako mantentze-lanak
    - Aldatutako lubrikatzaile-litroak, pneumatiko zaharrak zein kudeatzaile baimenduri eman zaizkion adierazita.
    - Txostenari erantsita, baimendutako kudeatzaileen hondakinen onarpen-fitxen kopiak aurkeztu beharko dira.

ERANSKINA: IBILGAILUEN ERROTULAZIOA: **Logotipoa gidariaren atean, kopilotuaren atean eta atzealdean, irudien arabera.**

